

Bero-beroan

Euskara “erraza”

TXERRA RODRIGUEZEK Karmele Rotaetxek *El Correo* egunkarian idatzitako artikulua pasarte eraman du bere blogera (www.blogak.com/garai-goikoa). Rotaetxek honela bukatu du artikulua: “Jatorrizko euskaldunak eta beste gutxi batzuk salbu euskarak hizkuntza formala, ikasia eta hedapen zailekoa izaten segitzen du”. Euskara soildu beharra lehen ere aldarrikatu du Rotaetxe soziolinguistak. Blogean erantzun bat baino gehiago izan da, horietako bat *ander* erabiltzailearena: “Izan ere, nola esaten dugu euskaldunok esaldi hau: ‘*Sí, podía haberte avisado*’.

pero no me acordé. Nire herrian beintzat horrela: ‘Bai, deitu zintuzketanehestooceeh.. bueno, *que podía haberte avisado*’. Begiratu ordea: ‘bai, deitzen ahal nizun, baina ez nintzen akordatu’. Ez al da errazago? eta bestea bezain jatorra gainera. Ni beintzat aspaldi hasi nintzen horrela hitz egiten, eta buruhauste asko kendu ditut gainetik”.

Euskara teknikaria Nafarroa Beherean

HITZARMENA sinatu dute Euskararen Erakunde Publikoak (EEP), Nafarroa Behereko herri-elkargoak eta

berrogei bat herri euskara sustatzeko. Ondorioz, besteren artean euskara teknikaria kontratatuko dute Amikuze, Iholdi Oztibarre eta Garazi-Baigorriko herri elkargoen artean.

Moreno Cabrera hizkuntz nazionalismo espainiarraz

NILA VIGILEN blogean (<http://nila-vigil.wordpress.com>) izan dugu Moreno Cabreraren berri. Unibertsitat Oberta de Catalunya hitzaldia eman zuen eta elkarrizketa egin zioten. Biak interesgarriak eta biak zintzilik Vigilen blogean.

ONINTZA IRURETA



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

BAHEA

TALAIAN

Justizia klasista

Joan den astean epaiketa egin zen Gasteizen hiru euskal herritarren kontra, “atentatua, autoritateari erresistitza, lesioak eta desordena publikoak” salatuta. Duela hiru urte, Zaramagako masakre polizialaren hogeita hamargarren urteurrenean –bost langile hil zituzten eta beste hainbat zauritu– egindako manifestazioan gertatutakoekin loturiko salaketak dira. Ertzaintzak modu basatian kargatu zuen manifestarien kontra, egun horietan kartzelan hildako preso politikoen argazkiak eta ikurrin krespoi belzdunak manifestarietara kartzetako aitzakiarekin. Hain zuzen, atxilotuen artean zeuden 1976ko martxoaren 3 hura jasan behar izan zuten bi pertsona. Fiskaltzak kartzela zigorra eskatu zuen hiru inputatuentzat, nahiz eta polizia autonomikoko agenteak kontraesanean sartu eta Espainiako Audentzia Nazionalak “terrorismoa goraiapatzea”ren akuzatitok absolbitu.

Hau da justizia klasista: masakre poliziala egin zutela hogeita hamar urte igaro eta gero, bere arduradun politiko eta poliziala akusatuen aulkira eraman gabe jarraitzen dute, nola Fraga Iribarne eta Martin Villa. Alabaina, 1976ko martxoaren 3ko gertakizun hiltzaileengatik, duela hiru urteko manifestazioan egia eta justizia eskatzen zuten horiek kartzelaratu nahi ditu. Bankari eta espekulatuzaileez “ahaztu” –langabezia izugarria sortzen ari den krisi ekonomikoaren arduradunak–, eta aldiz, jateko lapurtzen duen hura kondenatzen duen justizia berbera da hau. Lan istripuetan hainbeste heriotza izatearen arduradun diren enpresari horietaz ahaztu eta aldarrikapenerako manifestazioetan “desordena publikoak” sortzen dituzten langileak kondenatzen dituen justizia. Errepresioegileen justizia da, errepresaliatuen kontra. Justizia eskatzen jarraitzen dugu 1976an Gasteizen izandako masakre polizialaren arduradunen kontra.

Juan Mari Arregi

Jean-Baptiste Battistu Coyosek *gipuz-koaenscara.net*-en esanak: “Ipar Euskal Herrian euskara sustatzearen aurkako jarrerarik nabarmenena 16-24 urteko adin-multzozan gertatzen da. Ondorioz, euskararen ezagutza garatzeko irakaskuntza behar-beharrezkoa baldin bada ere, hizkuntza politikak euskarak balio sozial handiago izatea lortu beharko du, euskarak funtzio sozial berriak eskuratu eta, aldi berean, dagoeneko dituenak berma ditzan: euskara irakasteko hizkuntza izatea horietako bat da”.

Julen Arexolaleibak *Berrian* esanak: “Zenbat aldatu da Donostian EAJ egotetik Odon Elorza egotera? Nik ez dut sumatu EAJ eta EA zeudenean egiten ziren gauzak PSE-EErekin egiten ez direnik (...) Klabea, nire ustez, honako hau da: aukera kontziente bat da gaur egun euskaraz bizi nahi izatea. Orain dela 20-30 urte hasiko zen horrela izaten, baina 30 urte barru are gehiago izango da. Orduan, zer laguntza ematen diguten zain baldin bagoaude edo uste baldin badugu goian daudenean konponduko digutela arazoa, ba beharbada orain hobeto gaude, uste dugulako orain dauden horiek [Jaurlaritza berriak] ez dutela horretarako borondaterik. Orduan, geuk ere ez badugu borondaterik ez da ezer gertatzen!”.

Datozen San Ferminetarako libre

JOSE MARIA SAGARDUI "Gatza" libre izango da datorren urtean Espainiako espetxean 30 urte egin ondoren. Atxilotua eta espetxeratu izan zen 1980ko sasoi hartako agintariak ozen esan zuten: "Terroristek beren krimenak ordaindu beharko dituzte". Eta gogotik ordaintzen ari da preso zornotzarra, bai horixe. Gaur egun ere gisakoak entzuten dira atxilotu andana gertatzen den bakoitzean. Garai hartako gatazka bortitzak, aldiz, berean dirau egun ere, maila askoz apalagoan hori bai, beronen atzaparkadak sufritzen duenari baretasunaz hitz egiteak bere samina arintzen ez badio ere. Hiru hamarkada geroago, "ordainduko dute" esaldi ospetsuaren azpian estali du Espainiak bere porrota. Espainiaren batasunak eta molde politikoak berean dirau eta, alde horretatik, gaur gaurkoz garaipena lortzen ari dela esan daiteke, eta ez ETaren aurrean bakarrik. Baina zibilizazioaren aurrerapenaren ikuspegitik porrota da, orduko oinarritzko arazoak gainditu ez dituelako eta gatazka politikoak –bai, gatazka politikoak– bere horretan jarraitzen duelako.

Giza eskubideen esparruan, Estrasburgoko ilegalizazioen epaiak Espainia Europan inoiz baino homologatuago utzi duenean, "Gatza"-rena moduko orbanek errealitatea oso bestelakoa dela erakusten dute. Espainiak presoen erabilera maltzurra egin du eta egiten du ETaren aurkako borrokan, sakabanaketa, Parot doktrina eta preso gaixoekiko politika dira horien erakusleetakoak. Eusko Jaurlaritza berriak ETaren deslegitimazio politika du bere jardunaren ardatzetako bat eta horre-



GARI GARALDE / ARGAZKI PRESS

tarako presoekiko elkartasun agerpenak debekatu eta zigortzen ditu, haien eskubideen defentsa terrorismoaren apologia bilakatuz. Badira arazoak eskubide horiek aldarrikatzeko eta defendatzeko eta horrek, bere horretan, ez du inondik inora ETA legitimatzen, salbu eta unean uneko estrategia errepresiboak hala behar duela zehazten ez badu.

EUROPAKO espetxealdi luzeenetakoa den honetan, dena den, ez da errepresioaren ikuspegia bakarrik agertzen. ETaren Euskal Herria askatzeko helburuak non diren ikusita, ezintasun kontuak alde bikoak direla bistan da. ETak bere borroka-ekin jarraitzen du, sinetsiz gainera edo hala adieraziz, Euskal Herriaren autodeterminazioa eta lurralde batasuna gertuago izango direla Durangoko PSE-EEren egoitzarena moduko atentatuak eginez. Erakunde bere bakardadean, hori da gero eta gehiago ETaren egoera. Eta harrigarria eta ulertezina egiten dena da hortaz ez ohartzea eta zurrumbilotik duintasunez atera eta beste bide batean abiatzeko aukerei bata bestearen atzetik muzin egi-

tea. "Gatza"-ren hogeita hamar urte hauek arazoaren bilakaera pertsona baten egoeratik aztertzeko aukera eskaintzen dute, baina funtsean gizarte baten porrot kolektiboaren erakusle ere badira.

EAJ-K krisitik ateratzeko batasun hitzak izan ditu alderdientzat, baina izan, proposamena PSEri egindakoa izan da. Eta honek ezetz, noski, krisiaren aurrean ez daudela geldituko, eragin kortasunez ari direla eta jeltzaleek, nahi izatekotan, batu daitezela sozialista eta popularren itunera. PSEren ezezkoa biribila izan da, baina edonork suma dezake oraingo ezezko hori epe ertainera baiezko bilaka daitekeela, horretarako baldintza apur bat egokiagoak sortzen badira. EAJk hortik ikusten du bere etorkizuna, eta ez udako ipuina dirudien estrategia soberanistan. Proposamenarekin EAJk Arabako Diputazioa defendatzeaz gain, PSEk PPrekiko duen menpekotasuna haizaten du. Gauzatzeko egiten diren proposamenak bestela datoz normalean, sukaldetik pasata, eta jeltzale eta sozialisten sukalde lana ez dabil epe motzera begira.